

ESPARRU SOZIO-LINGUISTIKO ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea | Ilargi Olaiz Soto | Maila | DBH 3 IEHP | Ikasturtea | 2021/2022

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

DBH titulua lortzeko garatu beharreko **gaitasunak** izango dira helburu, eduki, eta metodologiaren oinarri, 3. DBH-rako curriculumak ezartzen dituen Gaztelania eta Literatura, Euskal Hizkuntza eta Literatura eta Geografia eta Historia ikasgaien edukiak eta helburuak horietara moldatzen ditugularik. Hona hemen landuko ditugun gaitasunak:

- 1) **Hizkuntza komunikazioa**: Gaztelaraz zein euskeraz, ahozko adierazpena, idatzizko adierazpena eta irakurriaren ulermena garatzea eta testu ezberdinak ezagutu, ezberdindu eta erabiltzea. Informazio idatziaren hautatzea, kontrastatzea, ulertzea eta sintetizatzea. Informazioaren bilaketan iturri ezberdinen erabiltzea eta kontrastatzea egitea, iritzi propioa modu kritiko batean eraikitzeke baldintza bezala
- 2) **Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak**. Datu kuantitatiboan (grafikoen) interpretazioa egiteko gai izatea eta hauek errealitateara ekartzeko gai izatea.
- 3) **Gaitasun digitala**. Interneten informazio egokia eta zuzena bilatzea, hautatzea, kontrastatzea eta ulertzea. Informatika trebezia garatu testu prozesatzaile eta ahozko aurkezpenak egiteko programak zuzenki erabiliz.
- 4) **Ikasten ikastea**. Ikaslea modu autonomoan bere ikasketa prozesua aurrera eramateko beharrezkoak diren antolakuntza, ikas teknikak eta lan ohiturak garatzea. Informazioaren bilaketan iturri ezberdinen erabiltzea eta kontrastatzea egitea.
- 5) **Gaitasun sozial eta zibikoak**. Ikaslea bizi den errealitatearen ezagutza orokorra garatzea eta honetan eragiten duten hainbat faktore sozio ekonomiko aztertu, ulertu eta interpretatu dezan, bakea, justizia soziala eta gizarte demokratikoetarako beharrezkoak diren baldintza bezala baloratu.
- 6) **Ekimena eta ekintzailtza**. Ikaslea modu autonomoan bere ikasketa prozesua aurrera eramateko beharrezkoak diren jarrerak garatzea; egokitasuna, zuzentasuna eta bikaintasuna lortzeko beharrezkoa den motibazioa eta lanarekiko jarrera aktiboa eta erantzulea garatzea.
- 7) **Kontzientzia eta adierazpen kulturala**. Gizarte ezberdinen adierazpen kultural ezberdinak ezagutu eta baloratzea eta hauen oinarrizko elementuak ezagutzea eta ezberdintzea.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu, [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen direnak. Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da. Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da. Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da. Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu. Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

EDUKIAK/ /ZEREGINAK/ GAITASUNAK

“MUNDUA EZAGUTZEN DUGU” (1.EBALUAZIOA)

- **Edukiak:**

- Munduko mapa politikoak: Europa, Afrika, Amerika, Asia, Ozeania. Mugak eta kontinenteen oinarrizko ezaugarri kultural-politikoaren ezagutzea.
- Euskerazko zein gaztelarazko adierazpen idatzia eta irakurmenaren ulermena; azalpen edo iritzi testuen ideien nagusien identifikazioa eta sintesia.
- Gaztelera eta euskera lexikoa.

- **Zereginak (gaitasunak) :**

- Mapa politikoak osatu.(5,6)
- Kontinenteen taulak osatu (estatuaren azterketa azkarra): hemisferioa, hiriburua, janari eta musika estilo tipikoak, pertsonai famatuak, ondare kulturala zein naturala eta garapen mailaren azterketa.(1,3,4,5,6)

- Kontinente bakoitzeko plater ospetsu baten errezeta (Europa), pertsonai baten biografia (Afrika), ondare kulturalaren (Asia) eta naturalaren (Amerika) deskribapena eta ahozko aurkezpena prestatzea power point bidez.(1,3,4,5,6,7)
- Berrien artikulua ezberdinen azterketa eta laburpena.(1,4,5,6)
- Proiektua: Estatu batera bidaia prestatu: estatuaren deskribapena (kokapena, mugak, hiriburua, garapen maila). Ondoren, ondare kultural zein naturalaren ikuspuntutik, ibilbide interesgarria diseinatu eta azaldu; ibilbidean garraioak eta ostatua zehaztu, aurrekontua egin eta dena batzen duen publizitate eskuorria idatzi eta diseinatu. Bidaia azaldu. (1,2,3,4,5,6,7)
- Irakurketa: *“El rostro de la Sombra”* (Alfredo Gomez Cerdá) (1,4,5,6,7)
- **Ebaluazioa:**
 - Azterketak eta proiektuak (%60): mapen azterketak (%25) + “bidaia prestatu” proiektua (%35)
 - Jarrera (%40)

“MUNDUAREN BANAKETA DESOREKATUA ETA MIGRAZIOEN FENOMENOA AZTERTZEN” (2. EBALUAZIOA)

Ikastetxeko proiektua den *Iturrama Solidarioaren* testuinguruan, honi lotutako bi proiektu burutzen dira, biak migrazio mugimenduen eragile diren arazoak eta ondorioak ezagututa, errealitate hau erakusteko narrazioak sortzea oinarri dutenak. Migratzaileen bizipenen berri izateaz gain, narrazio literarioen ezaugarriak ere barneratuko dituzte.

• **Edukiak :**

- Mundu desorekatua; muturreko pobrezia datuak eta baldintzak ezagutu.
- Garapen eta azpigarapenaren kontzeptuen lanketa eta haien baldintzak ulertu.
- Errefuxiatuen eta migrazioen fenomenoak ulertu (zergatiak, ondorioak, nondik norakoak, datuak.)
- errefuxiatuak haien lurretan;Palestinaren kasua.
- Saharai errefuxiatuen egoera
- Narrazio testua (ezaugarriak, elementuak, narratzaile motak, erabilera.)

• **Zereginak (gaitasunak):**

- Munduko BPG eta garapenaren zerrenda aztertzea eta mapan irudikatu.(2,3,4,5,6)
- Migrazio fluxuen mapa eta grafikoak azterketa.(2,3,4,5,6)
- Migrazioen inguruko erreportaia aztertu.
- Proiektua 1: Errefuxiatuaren Maleta (gaztelarazko proiektua); errefuxiatuen baldintzak ulertu eta bere tokian jartzeko, ikasleek bere burua errefuxiatutzat hartuko dute eta “ihesarako maleta” sinbolikoa prestatuko dute; eskutitza idatzi, pasaporte prestatu; gustoko duten irudi baten aukeraketa (eta azalpena) eta gustoko duten objektu pertsonalaren azalpena egingo dutelarik. (1,3,4,5,6,7)
- Proiektua 2: Migrante baten kontakizuna (euskeraz): Pertsonaiaren prestatzea eta narrazio testuaren oinarriko egitura aztertu ondoren, narrazio literario bat sortuko dute. (1,3,4,5,6,7)
- Irakurketa (euskeraz); *“Miñan”* liburua, Ibrahim Balde eta Amets Arzallusek idatzitakoa. (1,4,5,6,7)

• **Ebaluazioa**

- Azterketak eta proiektuak (%60): Landutako edukien azterketa teorikoa (%30), kontakizuna (%20) eta “errefuxiatuaren maleta” proiektua (%10) .
- Jarrera(%40)

“MUNDUA KONTATZEN DUGU” (3. EBALUAZIOA)

• **Eduki:**

- Euskerazko eta Gaztelarazko adierazpen idatzia eta irakumenaren ulermena eta lexikoa (hiztegia).
- Azalpen testu baten ezaugarriak, antolakuntza eta burutzea.
- Ekonomia sektoreak.
- Munduko hainbat herrialdeetan sortzen diren arazoak (eta zergatiak); deforestazioa, giza esplotazioa, deslokalizazioa.
- Estatu antolakuntza eta politikaren oinarriko kontzeptuak; demokrazia, diktadura.

• **Zereginak (gaitasunak) :**

- Estatu baten arazo sozial baten ikerketa eta hortik abiatuz, azalpen testu baten antolakuntza eta burutzea. Erreportaia egin (1,2,3,4,5,6),

-Egunkaria: Kurtsoan zehar egindako zereginen bilketa, hobetzea eta diseinua (errezeta, ondarea, kontakizuna eta 3. ebaluazioan landutako erreportaia/azalpen testua). (1,3,4,5,6)
-Irakurketa. (definitzeko) (1,4,5,6,)

• **Ebaluazioa**

- Azterketak eta proiektuak (%60): Azterketa (%10), erreportaia testua (30%) eta egunkaria proiektua (%20) .
- Jarrera (%40).

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

EDUKIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK (2. eta 3. DBH-koak)

[DBH CURRICULUMA](#)

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

- Ikasleek haien ikasketa prozesuan protagonismoa, autonomia eta lan ohitura egokiak garatu dezaten, **metodologia aktibo eta parteartzailea** dugu oinarri eta edukien barneraketaz gain, ikaslearen ikasketa prozesuari eta hobekuntzari lehentasuna emango diogu. Hortaz, testuliburuaz gain, nagusiki Cromebook-ekin lana, fitxa eta txosten solteak erabiliko ditugu, baita ikasleek beraiek sortzen dituzten ikas-materialak (eskema, taula, erredakzio, laburpen eta bestelakoak), hauek kalifikazioaren parte izango direlarik (ikus "ebaluazioa" atala).
- Ikasleak banaka arituko dira askotan baina **ikaskuntza kooperatiboak** eskeintzen dizkigun ekarpenak ere kontutan hartuko ditugu, elkarlana, kooperazioa eta ardura garatzeko tresna egokia delakoan.
- Ikasturtean zehar erabiliko den plataforma classroom izanen da. Plataforma honen bitartez, materiala elkarbanatuko da eta lanak entregatuko dira. Plataforma hau irakasle eta ikasleen arteko komunikazio bidea izanen da. Irakaskuntza eredu ez presentzialera pasako bagina, hau izanen da komunikazio bide bakarra.
- Klaseko dinamika asko baliabide bisualekin egingen dira.
- Irteerak ere egingen ditugu, beti ere ikasturtearen martxaren arabera.
- Argi utziko dira zeintzuk izango diren irakasleak erabiliko dituen ebaluazio eta kalifikazio irizpideak.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

[DBH CURRICULUMA](#)

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

- Azken nota hiru ebaluazioetan lortutakoaren batz bestekoa izanen da, baldin eta guztietan 5 gutxienez lortzen bada.
 - **%60 azterketak eta ikasleen ekoizpenak** (proiektuak).
*Batazbesteko egin ahal izateko, hauetan 4-ko kalifikazio minimoa atera beharko dute.
 - **%40 jarrera eta lana**
 - Klaseko lana/ ekoizpenak (%20)
 - Jarrera: materialen ekartzea eta zaintzea, euskera erabilera, motibazioa, saiakera, partehartzea (%15).
 - Etxeko lana (%5)
- *Atal honetan, ekoizpen eta azterketen notarekin batazbestekoa egin ahal izateko, 5ko kalifikazioa lortu beharko du ikasleak.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Borobiltzea:

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da. Nota honek gora edo behera egin dezake, (*gehienez 0,5*), ikasturtean zehar izandako eboluzioaren eta ekaineko klase egunetan izandako jarrera eta lan mailaren arabera.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

- **BERRESKURAPENAK KURTSOAN ZEHAR:.**

Berreskurapena: Ikasleak ebaluazio amaieran ez gainditzekotan, suspenditua duen atalen berregitea eskatuko zaio (edo dagokion azterketa egitea), epe zehatz batean.

- **AMAIERAKO EBALUAZIOA:** Ikasgaia gainditzeko, azterketa bat egingo da irakasleak emandako jarraibide edo plangintzaren arabera. Horren balioa %100 da. Deialdi honetan, gehienez ere bosteko kalifikazioa eskuratu ahalko da, azterketan nota altuagoa lortuta ere,(salbuespenak salbu).

KANPOKO EBALUAZIOA

2021/2022 ikasturtean ez da kanpoko ebaluaziorik egin.

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.